

## 3.2 GAIAREN LANKETA

### > Nire etxea



#### - Etxea kanpotik

##### Helburuak

- Etxearen gaineko hiztegia jasotzea.

##### Prozedura

- **Lehendabizi**, ume bakoitzari A fitxa eman.
- Denen artean fitxako irudiak begiratu eta agertzen den hiztegia ahoskatu.
- Etxeko gelen zerrenda idatzi arbelean: sukaldea, komuna, logela eta egongela.
- **Jarraian**, talde osoari B fitxa-multzoa banatu (talde osoari bakarra).
- Umeei, denen artean, B fitxako irudiak moztu (hezitzaileak moztu ditzake aurretik)
- Irudi bakoitza arbelean dagokion lekuan itsatsi (altzari bakoitza bere gelan).
- **Bukatzeko**, erakutsi umeei argazki-albumeko irudiak eta umeei hiztegi-koadernoan altzari bakoitzari dagokion izena idatzi.